# IKASTURTEKO PLANA 2018-2019 IKASTURTEA

## A. IKASTURTE HONETAKO DATU OROKORRAK

Ikastetxea: 015307 - IES Fray Juan De Zumarraga-Durango BHI

Helbide postala: FRAY JUAN DE ZUMARRAGA Z/G — Posta kodea: 48200 — Herria: Durango

Berritzegunea: B09 DURANGO berritzegunea — Telefonoa: 946817325

Faxa: 946810258 — ePosta: 015307aa@hezkuntza.net

### Datuak

Ikasle kopurua: 854 — Irakasle kopurua: 102

Zenbat HNAT(Ikastetxea Ulibarrin dagoenetik, zenbat HNAT desberdin izan ditu?): 4

Zuzendaria: Jon Gorriño Vicandi

Ikasle batzorderik badago? Bai — Zenbat kidez osatzen da ikasle batzordea? 10

Guraso batzorderik badago? Ez — Zenbat kidez osatzen da guraso batzordea? 0

### Irakasle taldea

| Talde Izena | Kopurua |
|---|---|
| Biologia-Geologia | 4 |
| Ekonomia | 2 |
| Erlijio Katolikoa | 1 |
| Euskara | 7 |
| Filosofia | 4 |
| Fisika-Kimika | 5 |
| Frantsesa | 2 |
| Gaztelania | 6 |
| Historia | 7 |
| Gorputz Hezkuntza | 3 |
| Informatika | 3 |
| Ingelesa | 7 |
| Kirol jarduerak (zikloak) | 8 |
| Latina | 2 |
| Marrazketa | 6 |
| Matematika | 8 |
| Musika | 3 |
| Orientazioa | 15 |
| Teknologia | 8 |
| Zeinu Hizkuntza Interpretea | 1 |

### Ikasgelak

| Ikasmaila | Letra | Eredua | Ikasle | Izena |
|---|---|---|---|---|
| DBH1 | C | D eredua | 22 | |
| DBH1 | D | D eredua | 24 | |
| DBH1 | E | D eredua | 23 | |
| DBH1 | B | D eredua | 23 | |
| DBH1 | A | D eredua | 22 | |
| DBH2 | E | B eredua | 14 | |
| DBH2 | D | D eredua | 23 | |
| DBH2 | A | D eredua | 24 | |
| DBH2 | B | D eredua | 23 | |
| DBH2 | C | D eredua | 23 | |
| DBH3 | B | D eredua | 23 | |
| DBH3 | C | D eredua | 22 | |
| DBH3 | D | D eredua | 22 | |
| DBH3 | A | D eredua | 21 | |
| DBH4 | C | D eredua | 23 | |
| DBH4 | D | D eredua | 21 | |
| DBH4 | E | D eredua | 20 | |
| DBH4 | B | D eredua | 20 | |
| DBH4 | A | D eredua | 20 | |
| BATX1 | E | D eredua | 30 | |
| BATX1 | F | D eredua | 30 | |
| BATX1 | D | D eredua | 30 | |
| BATX1 | C | D eredua | 26 | |
| BATX1 | B | D eredua | 30 | |
| BATX1 | A | D eredua | 30 | |
| BATX2 | D | D eredua | 25 | |
| BATX2 | E | D eredua | 25 | |
| BATX2 | C | D eredua | 25 | |
| BATX2 | A | D eredua | 25 | |
| BATX2 | B | D eredua | 25 | |

| Ikasmaila | Letra | Eredua | Ikasle | Izena |
|---|---|---|---|---|
| HZEM1 | ........ | D eredua | 25 | |
| HZEM2 | ........ | D eredua | 18 | |
| HZGM1 | ........ | D eredua | 25 | |
| HZGM2 | ........ | D eredua | 22 | |
| BESTELAKOAK | ........ | ........ | 19 | SAT |
| BESTELAKOAK | ........ | ........ | 7 | Gela Egonkorra |

# HNAT-AREN ETA HNB-REN DATUAK

## HNATaren Datuak

Izena: Maddi

Lehen deitura: Garaizabal

Bigarren deitura: Buldain

NAN Zenbakia: 45751158H

Noiztik zara HNAT? 2018-2019

Ulibarri programaren baitako formazioa jaso duzu? Ez

Zenbat urte daramazu ikastetxe honetan? 1

HNBko kide izan zara? Hala balitz, zenbat urtez? 0

## HNBren Osaera

| Izena | Lehen abizena | Bigarren abizena | Nan | Estamentua | Aurreko urteotan |
|---|---|---|---|---|---|
| Maddi | Garaizabal | Buldain | 45751158H | | Ez |
| Nerea | Etxegibel | Alberdi | 78865922A | Zuzendaritzako kidea | Ez |
| Patxi | Azkarate | Maturana | 14931525V | Irakaslea | Bai |
| Pedro | Azkarragaurizar | Igartza | 30554553L | Irakaslea | Bai |
| Ricardo | Aiartzaguena | Agirrebeitia | 78862751Y | Irakaslea | Ez |
| Susana | Agirregomezkorta | Aranburu | 15384144L | Irakaslea | Ez |
| Xabier | Boveda | Garai | 30555306J | Irakaslea | Bai |

## HNAT eta batzordekideen dedikazio orduen banaketa

### Dedikazio osoa

Bilera orduak: 1.0 ordu / Maiztasuna: Astero

Batzorkideen dedikazioa astero: 0.0 ordu

### Batzordeko bilera

| Asteko eguna | Hasiera | Bukaera | Maiztasuna |
|---|---|---|---|
| Ostirala | 11:00 | 12:00 | Astero |

### Batzordekideen dedikazioa

| Izena | Lehen abizena | Bigarren abizena | Estamentua | Al | Ar | Az | Og | Ol | H |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nerea | Etxegibel | Alberdi | Zuzendaritzako kidea | | | | | | 0.0 |
| Xabier | Boveda | Garai | Irakaslea | | | | | | 0.0 |
| Susana | Agirregomezkorta | Aranburu | Irakaslea | | | | | | 0.0 |
| Ricardo | Aiartzaguena | Agirrebeitia | Irakaslea | | | | | | 0.0 |
| Patxi | Azkarate | Maturana | Irakaslea | | | | | | 0.0 |
| Maddi | Garaizabal | Buldain | | | | | | | 0.0 |
| Pedro | Azkarragaurizar | Igartza | Irakaslea | | | | | | 0.0 |

# B. IKASTURTEKO HELBURUAK, EBALUAZIO ADIERAZLEAK, JARDUERAK, TENPORALIZAZIOA ETA BALIABIDEAK.

# 1. Eremu Instituzionala

## 1.1. Ikastetxearen antolakuntza

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskola kontseilua | Ikastetxe osoaren inplikazioa lortzea normalizazioaren bidean: Eskola Kontseiluaren kanporako ohar eta gutunak. | Eskola Kontseiluaren iplikazioa idatziz adierazita. | Eskola Kontseiluak berak sortuta eta bere izenean bidaliko dituen ohar eta gutunen orri-oinean hauetako adierazpen bat txertatuko du: • Bakoitzak berea, euskara gurea. • Besteren hizkuntza, ona; norberea, askoz hobea. | Zuzendaria + HNAT | Iraila-ekaina (hiruhilabete bakoitzaren amaieran jarraipena). | Ohar eta gutun mota: • Guraso guztientzat deialdia, gonbidapen eta abarrak.. • Eskola Kontseiluaren ziurtagiriak. • Eskola Kontseiluaren zinpeko aitorpenetan. • Eskola Kontseiluaren sinadura behar duten dokumentuetan (ikastetxeak berak sortuta). |
| Eskola kontseilua | Institutuko giro euskalduna kanpora proiektatzea: Eskola kontseiluaren iritzia eta ekarpena lortzea | Iritzi eta pertzepzioen zerrenda. Erabileraren azterketa bat. Azterketa honen ondorioen akta. | Eskola kontseiluaren batzarreko gai ordenean eskolaz kanpoko ekintzen azterketa sartu: -Begirale eta zaindarien lana, -Ikasleen txangoak, -Kanpoko erakundeen eskuhartzea ikastetxean. Azterketarako irizpideak: Euskaraz ekintzen erabilera, Partaideen euskara erabilera, Eskolaz kanpoko ekintzen indarguneak eta ahuleziak Balorazioak jaso, eta ondorioak hurrengo urteko planerako erabili | Zuzendaria + Eskola Kontseiluko kideak | | Egiten diren kirol jarduerak, txangoak eta erakundeen eskuhartzeen zerrenda. Irizpideak ondo azalduta. Ondorioen zerrenda aktan |
| Eskola kontseilua | Normalkuntza Batzordea eta eskolaren egitura osatzen duten beste atalen arteko lotura sendotzea: Normalkuntzaren eragina beste egitura horietara aztertzea. Atal komunak atera, elkarrekin lan egiteko zubiak eta loturak eratu. | Harreman estuagoa izango da, ohiko batzarretatik kanpo | HNBko jarduerak estamentu guztiei denboraz azaldu eta euren iradokizunak kontuan hartu. | Zuzendaria + HNAT | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gurasoak (partaidetza, inplikazioa) | Gurasoak Normalkuntza proiektuarekin bat etortzea, partaidetza eta adostasuna lortzeko | Harreman jarraia egongo da, gurasoek dituzten kezkak eta arazoak ezagut ditzagun | Ahal izan ezkero, guraso elkarteko kide euskalduna(k) jarri kontaktu gisa | HNATk eta gurasoen ordezkariak | | Ikastetxean antolatzen diren hainbat jardueretan modu aktiboan partehartzera gonbidatzea,baita antolakuntza-lanetan ere. Adibidez: Arrazola, Eguen zuri, Santomasak, euskararen eguna, irratian,... |
| Gurasoak (partaidetza, inplikazioa) | Institutuko giro euskalduna kanpora proiektatzea: Begiraleen lana ondo baloratzea, goraipatzea, eskertzea, saritzea... | Gurasoen ordezkarien kooperazioa lortu da | Hiruhilabetean behin, balorazio saioekin batera, Zuzendariak eta Gurasoen Elkarteko ordezkariek begirale eta zaindariei euren ahaleginagatik eskerrak eta zorionak emango dizkiete. | Zuzendariak, Guraso elkarteak, HNBatzordeak | | |
| Zuzendaritza | Institutuko giro euskalduna kanpora proiektatzea: Zuzendaritzak partaidetza zuzena eta lidergoa izatea | Erabileraren azterketa egina eta ondorioak aterata. Aktan jasota | Zuzendariak eta HNATak antolatutaeta gidatuta, begirale eta zaindariekin hausnarketa batzarra egin:<br>- orain artekoaren balorazioa,<br>- egoeren azterketa,<br>- haien kezkak eta beharrak,<br>- hurrengorako jokabideak | Zuzendaritza + HNAT + begirale + zaindariak | | |
| Zuzendaritza | Zuzendaritzak Hizkuntza Normalkuntzako Proiektuaren aldeko apustu zintzoa egitea eta eskolako edozein ekintzatan euskararen presentzia bermatzea | Irakasle etorri-berriei eta ordezkoei informazioa eta erabakiak emanda. | HNATrekin batera, irakasle berri zein ordezkoei, ikasturterako Normalkuntzaren planaren barruan dauden egitasmoak azalduko dizkie. Horrekin batera, konpromezu eta euskararen erabilerarekin izan beharreko jokabideak azalduko dizkie. | Zuzendaria + HNAT | | Urteko Plana, Hezkuntza Proiektua, AJA, Euskararen Eguna, Santomasak, Web orria, barne komunikaziorako sistemak, irratia, kulturaldia... |
| Zuzendaritza | Zuzendaritzan sortzen den dokumentazioa euskara egoki eta jasoan egotea | Dokumentazioari jarraipena egingo zaio eta akatsak baleude, dagokionari jakinaraziko zaio | Zuzendaritzak ateratzen duen dokumentazio guztia euskaraz lehenetsita egon, eta hizkuntzaren zuzentasuna zaindu | Zuzendaritzako kide guztiek | | |
| Dok. administratiboak, ekonomia | Ikastetxeak erabiltzen duen dokumentazio ekonomikoa eta administratiboa euskeraz egotea | Bete egiten dela ziurtatu. | Institutu barruan erabiltzen den dokumentazioa euskaraz lehenetsi. | Zuzendaritza taldea. | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Dok. administratiboak, ekonomia | Ikastetxeko dokumentazioa euskaraz gutxienez sortzea, erabiltzea eta bidaltzea. | Dokumentazioa aztertuta eta hobekuntzak egina. | Aztertuko diren dokumentuak hauek izatea proposatzea: Tutoretza Plana: egitura, atal orokorrak. Hezkidetza Plana. Zuzendaritzarekin batera beharrezkoak/egokiak diren hizkuntza hobekuntzak egitea. Irizpide hauen arabera aztertuko ditugu: • Mezuaren ulergarritasuna. • Idazkeraren egokitasuna: jatorregia, formalegia ... lortu nahi den helburuaren arabera (informatzea, planifikatzea ...) • Idazkiaren itxura bera: kolorez, letra mota eta tamaina, taulak eta koadroak ... | HNB + Orientazio mintegia + Zuzendaritza + arloetako irakasleak | | Aipatutako testuak aztertu, landu eta hizkuntzaren kalitate maila hobetu. |
| Jakinarazpenak | Hezkuntza komunitatea osatzen dutenei egindako deietan, bialdutako informazioan eta bestelako guztietan (batzarrak...) euskeraren erabilera hobestea. | Ikastetxean egiten diren ohiko jakinarazpen ereduak finkatuta dauden ala ez egiaztatuko da eta zenbat falta diren ikusi. | Ohiko jakinarazpenen ereduak behin finkatuta, denen eskura jarri | Zuzendaritzak, Sailburuak, HNATk | | Ohikoak eta berriak diren oharrak, jakinarazpenak.. |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Jakinarazpenak | Zuzendaritzan eta idazkaritzan erabiltzen den dokumentazioa euskaraz sortzen dela bermatzea eta euskara beraren maila zuzena eta egokia ziurtatzea. | Kanporatzen den informazioak euskarazko maila zuzena eta egokia du | Ikastetxeko webgunean eta twitterrean argitaratzen diren jakinarazpenak aztertuko ditugu honako irizpideen arabera: - hartzailearen araberako edukiaren egokitasuna. - Hartzailearen araberako itxuraren egokitasuna. - hartzailearen araberako euskara mailaren egokitasuna eta zuzentasuna. Beharrezkoa balitz, jakinarazpen-ereduaksortuko ditugualdiri errepikatzen diren mezuetarako. Proposamenak webguneko arduradunari eman. | HNB + Zuzendaritza + webguneko arduraduna | | Jakinarazpen-tipo ereduak: deialdiak, abisuak, gai-ordenak, informazio laburrak... |
| Mediateka | Hezkuntzan erabili ahal diren euskerazko baliabideak ezagutaraztea. | Toki estrategiko batzuetan euskerazko baliabideen gaineko informazioa izango da | Liburutegian, HNATak liburuzaina eta zuzendariarekin batera, euskara eta euskal curriculumaren gaineko web helbideak daudela bermatu. | Liburuzainak, zuzendaritzak eta HNATk | | Web orria, aldizkaria, barne eta kanpo komunikaziorako sistemak... |
| Mediateka | Liburutegian euskaraz dugun materialak (liburuak, aldizkariak, bideoak, DVDak, KDak...) ezagutaraztea eta erabilera bultzatzea: ikastetxeko webgunean internet-eko baliabideak. | baliabideak handitu dira eta partekatu dira. | Ikastetxeko webgunean, Hizkuntza Normalkuntza Plana atalaren barnean, honako helbideetara lotura eskaini: http://www.argia.eus http://www.azkuefundazioa.eus https://txatxangorri.wordpress.com/ http://www.itzultzailea.euskadi.net/traductor/welcome.do www.hiru.eus http://sustatu.eus/ http://www.klikasi.eus/ | HNB | | Webgune helbideak. Ikastetxeko webgunean berezko atala HNPrako |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Espazioaren hizkuntza-antolaketa, hizkuntza paisaia | Hizkuntza paisaiari dagokionez, euskararen presentzia eta zuzentasuna etengabe zaintzea. | Hormetan jartzen diren oharrak eta kartelak euskara hutsez eta ondo idatzita daudela ziurtatuko da. | Bedelari bere ardurapean dauden pasillo eta sarrerako mezuak, kartelak, oharrak... euskaraz eta ondo idatzita daudela zaindu eta, hala izango ez balitz, HNBkoei ohartarazi | Iñaki Erezkanok eta HNBk | | |
| Espazioaren hizkuntza-antolaketa, hizkuntza paisaia | Zuzendaritzan eta idazkaritzan erabiltzen den dokumentazioa euskaraz sortzen dela bermatzea eta euskara beraren maila zuzena eta egokia ziurtatzea | Agerian euskaraz dagoenak lehentasuna dauka. | Eskolaz Kanpoko Ekintzen dokumentazioa aztertu: Partekatzen diren txangoen kartelak eta deiak. Partekatzen diren kirol partiduen deiak, emaitzak eta sailkapenak. Kirol jarduerekin lotuta dauden mezuak iragarki tauletan. Irizpide hauen arabera aztertuko ditugu: Mezuaren ulergarritasuna. Idazkeraren egokitasuna: jatorregia, formalegia … lortu nahi den helburuaren arabera (informatzea, konbokatzea …) | HNB + Kirol arduradunak | | |
| Hizk. Normalkuntzarako egitura | Normalkuntza Batzordea eta ikastetxearen gainerako partaideen (sailak, ikasleen taldeak...) arteko lotura sendoa lortzea. | HNBak egiten dituen ekintzen gaineko informazioa hobeto zabalduko da. | Pedagogia batzordeko partaideekin zein gainerako estamentukoekin harreman zuzenagoak izan (e-inika, aurrez aurrekoak...) | HNBk | | E-inika, PK bilerak, Klaustroa, Tutoretza bilerak |
| Bestelakoak | Normalkuntzari dagokiona Zentruko Hizkuntza proiektuan txertatzea | Proiektu horren azterketak adieraziko digu ea egin dan | Hizkuntza Proiektua egiteko taldean HNB kide bat sartu da. | Taldekideek eta HNBko kide batek | | |

## 1.2. Normalkuntza sustatzeko erabakiak

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hezkuntza-proiektua | Esparru guztietako inplikatu denak informatuta egotea Hizkuntza Normalizazio plangintza zein den eta Ulibarri barruan egoteak zer dakarren (14-18 Plana): Hezkuntza Proiektuak euskararekiko duen eragin positiboa mantentzea eta, ahal izatekotan, berpiztea. | IHParen euskararekiko erreferentziak gaurkotu dira. | Hezkuntza Proiektuan (IHP) euskararen erabilerarekin lotutako xedeak, helburuak edota ebaluaziorako irizpideak dauden begiratu. Dauden kasuetan, aztertu eta eguneratu (behar izanez gero); ez dagoen kasuan, erabileraren inguruan xedea (X), helburu nagusi (HN) eta ebaluazioarako adierazleak (EA) proposatu. Adibidez: X.-Ikas eta irakaskuntzarako hizkuntza-ardatza euskara. HN.- Hezkuntza etaparen amaieran, ikasleen euskararen konpetentzia maila B1 eta B2 mailek esijitzen dutena bermatuta dago. EA.- Ahoz eta idatziz ulermen eta adierazpeneko B1 eta B2 mailak. | HNB+Hizkuntza Mintegikideak | | Hezkuntza Proiektua. 14-18 HNP Plana |
| Hezkuntza-proiektua | Esparru guztietako inplikatu guztiak informatuta egotea Hizkuntz Normalizazio plangintza zein den eta Ulibarri barruan egoteak zer dakarren | Eragile guztien parte hartzea izango da ebaluazio adierazlerik onena, gure proiektua zenbat eta hobeto ezagutu orduan eta erraztasun handiagoak izango dira ekintzak aurrera atera daitezen. | Hizkuntz Normalkuntza Proiektuaren ildo nagusien berri emango diegu bai sailetako irakasleei, bai ikasleei, baita gurasoei ere. | HNBk | | |
| Curriculum-proiektua | Gure proiektua ikasgaietako curriculumetan isla izatea | Curriculumekiko sor daitezkeen aldeak aztertu egingo dira, beharrezko doitzeak egiteko | Pedagogi Batzordean departamentu guztiekin harremanetan egon, denon arteko egokitzapenak egin ahal izateko. | Sailburuak eta HNATk | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Curriculum-proiektua | Ikastetxeko kudeaketa-planak eta proiektuak Normalkuntzaren ildoei jarraitzea: Curriculuman euskararekiko atalak zehaztea. | Atalak zehaztu egin dira | Ikastetxeko Curriculum Proiektuan (ICP), hizkuntzen atalean, Hizkuntza Trataera Bateratua (HTB) lantzea edo prestatzea agertzen den atalean, proposatu trataera bateratua bai, baina hizkuntzen trataera berbera EZ, erabakitzea eta garbi agertzea. | HNB+Zuzendaritza taldea+klaustroa | | IHPa eta ICpa |
| Hizkuntza-proiektua | Ikastetxeko kudeaketa-planak eta proiektuak Normalkuntzaren ildoei jarraitzea: Hizkuntza Proiektuaren (IHiP) oinarriak zehaztea. | IHiPa osatzeko urratsak emanda, erabakiak adostuta. | IHiParen Gida : ikasleen euskararen adierazpenaren kalitate eta aberastasunaren egungo maila aztertu. Batzorde pedagogikoaren bilera monografikoa antolatu. | HNAT + Batzorde Pedagogikoa. | | |
| Hizkuntza-proiektua | Normalkuntza Batzordeak ateratako dokumentu nagusiak Hizkuntza Proiektuarekin bat egitea | Gure dokumentu nagusiak eta Hizkuntza Proiektuarenak ildo beretik doazela behatuko dugu. | Hizkuntza Proiektua egiteko batzordean HNBko ordezkari bat edo gehiago egon. | HNBko bi pataidek | | |
| AJA | Normalizazioan Ikastetxe osoaren inplikazioa lortzea. Ikastetxeko Antolamendu eta Jarduetarako Arautegiko (AJA) propio diren ataletan Normalizaio Proeiktuarekin lotuta dauden prozedurazko jokabideak txertatuta egotea. | Jokabideak proposatu, onartu eta dokumentuan idatzi dira. | AJA hausnartu eta egokitzapen horiek txertatu. | HNATk | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| AJA | Normalizazioan Ikastetxe osoaren inplikazioa lortzea. Ikastetxeko Antolamendu eta Jarduetarako Arautegiko (AJA) propio diren ataletan Normalizaio Proeiktuarekin lotuta dauden prozedurazko jokabideak txertatuta egotea. | Jokabideak proposatu, onartu eta dokumentuan idatzi dira. | Jaurlaritzatik agintzen diren aldaketak euskara egokian txertatzen diren zaindu | HNATk eta arloetako irakasleak | | |
| Aurrekontua | Normalkuntzarako diru-kontuak zentroko aurrekontuetan sartuta egotea. | Aurkeztutako plangintzetarako behar den dirua ziurtatuko da. | Egoera egokia izan ez arren, aurreko urteko ekintzak mantentzen ahaleginduko gara: euskara eguna, santomasak, kultur aldia (Klak motibazio proiektua, Euskara eta hedabideak, Arrazolako egonaldia, Zeraingo bisita: ur-zerrategia eta burdin mehategiak; Kontzertua.... | HNBk | | |
| Aurrekontua | Normalkuntzaren diru-kontuak ikastetxeko aurrekontuetan sartuta egotea: HNP roiektuaren garapenerako diru beharrak lortzea. | Abenduaren 3ko ekimenak ordainduta. | Institutuko Euskararen Eguna ospatzeko ikuskizuna ekartzeko dirulaguntza eskatu. | HNAT + irakasleak | | Abeslari, antzerki talde, mago, musika taldea, hitzaldia, kontalaria, animazioa … zein izango den aukeratu eta aurrekostoa eskatu. |
| Urteko memoria | Esparru guztietako inplikatu denak informatuta egotea Hizkuntza Normalizazio plangintza zein den eta Ulibarri barruan egoteak zer dakarren: Hizkuntza Normalkuntzako Urteko Planaren Memoria prestatzea eta honen emaitzak Memoria orokorrean ere txertatzea. | Urteko Memoriaren laburpena egina eta txertatuta. | Urteko datuen hausnarketa egin eta gero, Memoria orokorrean txertatzeko, honako atalak dituen txostentxoa prestatuko du: Normalkuntzako urteko ekintza osagarrien zerrenda. Normalkuntzako urteko ekintza osagarrien lorpena: noraino bete. Hurrengo ikasturterako ondorioak eta proposamenak. | HNB | | ulibarri.euskadi.eus |

## 1.3. Ikastetxearen harremanetarako hizkuntza-irizpideak

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikastetxeekin | Ikastetxeak beste Ikastetxeekin, Berritzegunearekin, Hezkuntza Administrazioarekin, Instituzioekin, Elkarteekin, Enpresekin eta Hornitzaileekin dituen harremanetan euskararen erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskara hutsez egitea. | Euskaraz aritu gara/dira. | Herri mailan eta herri desberdinentzat antolatzen diren ekintza komunetan irakasleon artean, eta irakasleok beste ikastetxeetako ikasleekin euskaraz aritzeko konpromezuari eutsi. | Klaustro osoa eta Eskola Kontseilua | | Ikastetxeko Urteko Planeko helburuen artean jarri. |
| Berritzegunearekin | Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskeraren erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskera hutsez egitea: Berritzegunekoekin euskaraz. | Berritzegunekoekin beti euskaraz | Lankideei mezu hau helaraziko diegu (klaustroan esanez, barne postaren bidez…): Berritzeguneko webgunean (SITES eta bestelakoetan) partaidetza (foroak, mezuak, izena-ematea…) euskara hutsez erabili. | HNAT + Zuzendaria | | |
| Hezkuntza Administrazioarekin | Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskararen erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskara hutsez egitea. | Hezkuntza administrazioak bialdutako idatzizko mezuak edo/eta ahozkoak zein hizkuntzan dauden kontuan hartuko dugu. | Bialdutako materiala erderaz baino ez badago, bueltatu egingo da. | Zuzendaritzak eta HNBk | | |
| Instituzioekin | Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskararen erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskara hutsez egitea. | Helduko zaigun informazioaren behaketa egingo da. | Harremanak maiz izaten ditugun erakunde ofizialen eta bertako langileen zerrenda egin, aurrerantzean euskaraz izango den konpromisoa lortzekotan. | Zuzendariak + HNATk | | |
| Instituzioekin | Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskararen erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskara hutsez egitea. | Helduko zaigun informazioaren behaketa egingo da. | Instituzioekin ere euskara lehenetsiko dugu harremanetan, erdara hutsean datorren informazioa birbidaliz eta euskaraz ere nahi dugula esanez. | Zuzendaritzak. | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Instituzioekin | Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskararen erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskara hutsez egitea. | Helduko zaigun informazioaren behaketa egingo da. | Udaletik datozkigun proposamenei ezezko biribila esan (San Agustinen antolatutakoak, esaterako), aukera egon eta euskara hutsez ez badira. | HNBk | | |
| Instituzioekin | Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskeraren erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskera hutsez egitea: Euskal Erakundeekin eta bestelako erakunde euskaldunekin euskara ahoz eta idatziz erabiltzeko konpromisoari eustea. | Idatziko eta ahozko harreman gehienak (%80) euskaraz. | Ekintza bateratu bat gauzatu baino lehen, ikastetxeetako HNATek antolatzaile eta arduradunekin hitz egin estrategia eta jokabide batzuk adosteko, adibidez: Antolatzaileen bitartekaria euskalduna izan behar da. Mezuak, ahozko azalpenak, megafonia. Mezu idatziak, sloganak, kartelak. Parte hartuko duten begirale edota kanpoko emaileren hizkuntza jokabidea: euskaraz azalpenak, euskarari eutsi. ... | HNB+Zuzendaritza+Klaustroa | | |
| Elkarteekin | Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskeraren erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskera hutsez egitea. | Nagusiki euskaraz aritu gara/dira. | Kirol ekintzetan (elkarren aurkako lehiaketetan) monitoreok, gurasook eta irakasleok, jokalariekin eta gure artean euskaraz egiteko ardura hartu. Beste taldeko jokalari, begiraleei eta gurasoei euskaraz ere. Inplikatu guztiei eskaera hau helarazi (arrazoituta) | HNT + Zuzendaria +Begiraleak + Guraso Elkartea. | | |
| Elkarteekin | Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskeraren erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskera hutsez egitea: Elkarteek gure ikastetxean euskara zuzena eta egokia erabiltzea. | Elkarteeki harremanak euskaraz dira. | Klaustrokide eta zuzendaritzakoei hau proposatuko zaie: Herriko elkarteekin interbentzioak adosterakoan euskara lehentasunez jarri. | HNB+Zuzendaritza+Irakasleak | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hornitzaileekin | Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskeraren erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskera hutsez egitea: Eskolako giro euskalduna kanpora proiektatzea | Hornitzaileekin materialak euskaraz (ere) dira. | Hornitzaileek egindako instalazioetako arau eta jarraibideen kartelak euskaz (ere) ekartzeko eskatuko diegu (ordenagailu, sukaldeko tresneria…) | HNAT + Zuzendaria | | |

## 1.4. Eskola eta eragileen arteko elkar hartzea

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikastetxeen arteko jarduerak | Beste ikastetxeekin kontaktuan egonez euren beharrak, nahiak eta egitasmoak ezagutzea eta, ahal bada, ekintzaren batean koordinatzea. | Ildo komunen bati jarraitzen diogula behatzea. | Berritzeguneko batzarrak elkarrekiko harremanak lantzeko eta ekimen komunen bat antolatzeko erabili. | Zentroetako HNATak. | | |
| Ikastetxeen arteko jarduerak | Eragileek gu ikastetxe euskaldun eta euskalzale modura ikustea.- Ikastetxeen arteko harremanak euskaraz sustatzea | Ekintza komunetan ikastetxe desberdinetako ikasleen artean euskaraz (nagusiki, beti…) hitz egin dute. | Elkarrekintzetan taldeen arteko lehenengo harremana programatua eduki. Ekintza batean topatu aurretik, irakasle-arduradunek taldeen aurkezpenak egitea. | HNAT+tutorea k+ikasleak | | Ikastetxeetako tutoreak aurrez adostu. |
| Herriko euskara-elkarteak | Aspalditik izan ditugun harremanak zaintzea eta sendotzea. | Dauzkagun harremanak eta kolaborazioak orain arteko moduan jarraitzen ahaleginduko gara. | Elkarteon euskara hobetzeko ikastaroen edo beste ekimenen (hiri kanpamenduak, aisialdirako proposamenak...) berri emango diegu ikasle eta gurasoei. | HNBk | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Herriko euskara-elkarteak | Eragileekin (aldizkari, irrati, telebista, berritzegune, udala, Berbaro, Plateruena, Gerediaga, etab) harreman sistematikoak izatea, euskara eta euskal kultura zabaltzea lortzeko (14-18 Plana): Euskararen aldeko herriko eskaintzan parte hartzea. | Elkarteen ekimenen berri jasota. | Herriko elkarte euskaldunen webgunea edota twitter-a gogokoen artean gorde. Haien eskaintza astero kontsultatu, eta aproposak diren ekintzak irakasle eta ikasleen artean zabaldu (ikastetxeko webgunean edota twitter-en). | HNAT | | |
| Bestelako elkarteak | Gure kulturaren berezitasunak gorde eta zabaltzen laguntzen duten elkarteekin (Gerediaga, dantza taldeak...) harremanetan jarraitzea. | Aipatu elkarteetan gure ekimenen berri agertzea. | Elkarte hauekin kontaktuan jarrita, dituzten eskaintzen berri emango diegu bai gurasoei, baita ikasleei ere. | HNATk | | |
| Bestelako elkarteak | Hezkuntza formalaren eta ez formala euskaraz eskaintzen duten erakunde euskaldunekin harremanak izatea. | Ikastetxeaz kanpoko hezkuntza erakundeekin harremanak izatea. | Herriko elkarteekin eskolaz kanpoko ekintzetan eta eskolako ekintza osagarrietan (ikastetxearen jai-egunetan, adibidez) parte hartzeko aukerak ikusi. Ikastetxera haien sarbida eta baldintzak adostu. Adibidez.- • Aisialdia elkarteak. • Antzerki taldeak. • Bertso elkarteak. • Mendizale elkarteak… Berbarok auten martxan ezarriko duen Itzartu proiektuaren berri eman eta aktiboki parte hartu | HNATk eta Zuzendaritzak | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskal komunikabideak | Eragileekin (aldizkari, irrati, telebista, berritzegune, udala, Berbaro, Plateruena, Geregiaga, etab) harreman sistematikoak izatea, euskara eta euskal kultura zabaltzea lortzeko: Euskaraz diren internet baliabideak didaktikoki erabiltzea. | euskaraz diren edo ez | Euskaraz aritzen diren Youtuber pare baten lanak aztertu eta ikasleekin partekatu sarean euskaraz ere bizi daitezen. | HNB | | |
| Euskal komunikabideak | Euskaraz diren aldizkari eta egunkariak didaktikoki erabiltzea. | Erabilera didaktikoa egina | Anboto edo Berria egunkariak didaktikoki klasean lantzeko proposamenak prestatu. | Euskara edota arloetako irakasleak ( berriaren arabera, alegia, teknologia berrien inguruko berria bada, Teknologia edo Informatika irakasleak...) | | Anboto, Berria, Elhuyar, Argia... |
| Bestelakoak | Web orriko informazioa euskaraz lehenestea. | Arduradunarekin bat zainduko da. | Teknologia berrien bidez euskara indartu. | Arloko irakasleek, Maite Arinek, HNBk | | Film lehiaketa, irratia. |

## 2. Eskolako kideen hizkuntzazko prestakuntza eta erabilera

### 2.1. Ikasleak

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Komunikazio-gaitasuna | DBHko ikasleek euskara ikasi beharreko irakasgaia izatez gain, komunikazio tresna ere badela konturatzea eta era horretan beraien erabilera areagotzea | Euskararen erabilera areagotzen den behatuko dugu. | Berbarok eta antzeko erakundeek euskaraz egiten dituzten eskaintza ludikoei buruzko informazioa eman ikasleei. Baita aurten martxan ezarriko duen Itzartu proiektuaren inguruan ere. | HNATk eta euskara sailak | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Komunikazio-gaitasuna | DBHko ikasleek euskara ikasi beharreko irakasgaia izatez gain, komunikazio tresna ere badela konturatzea eta era horretan beraien erabilera areagotzea | Euskararen erabilera areagotzen den behatuko dugu. | Euskara modu naturalean erabiltzeko tutoretza orduak baliatu; iritziak, proposamenak... euskaraz egin ditzaten | Tutoreak, euskara irakasleak, beste arloetako irakasleak | | |
| Komunikazio-gaitasuna | DBHko ikasleek euskara ikasi beharreko irakasgaia izatez gain, komunikazio tresna ere badela konturatzea eta era horretan beraien erabilera areagotzea | Euskararen erabilera areagotzen den behatuko dugu. | Maila eskasa duten ikasleak (etorkinak, bereziki) udalarekin eta Berbaro elkartearekin (euskara sustatzeko elkartea)batera antolatuko diren indartze saioetara bideratu | HNATk, HIPIk, Udaleko euskara zerbitzuak eta Berbaro elkartea | | |
| Interakzio didaktikoa | Euskara hutsean beraientzat interesgarriak diren proiektuak sortzea | Proiektuak burutzen direla egiaztatuko dugu. | DBHko Prentsa tailerreko irakasleak eta ikasle taldeak izango dute "Heu be zantzoka" ikastetxeko aldizkaria egiteko ardura. | HNBk eta HNATk | | |
| Interakzio didaktikoa | Ikasgela barruan euskararen erabilera sendotzea.-Ahozko adierazpena lantzea. | ahozko hizkuntza bereziki landu da. | Iragarki publizitarioa grabatu. 20''- 30'' -ko iragarkia asmatu eta telefonoarekin grabatu. Lehiaketa edo erakusketa moduan ikastetxeko webgunean eskegi, klasean bakarrik ikusi, Euskararen Egunean erakutsi… | Tutorea + ikasleak | | Azpitaldeak egin. Iragarriko den produktua aukeratu. Grabazioaren gidoia prestatu. |
| Partaidetza, inplikazioa | DBHko ikasleek gure egitasmoan gogoz parte hartzea | Ikasleen aldetik egindako proposamenak edo konpromisoak kontuan hartu eta bideratu egingo dira | Ikasleen euskara talde zabala eta eraginkorra sortzen ahalegindu, euskararen aldeko jarrera aktiboa lortzeko | HNATk eta HNBko partaide batek | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Partaidetza, inplikazioa | DBHko ikasleek gure egitasmoan parte hartzea aktiboki: Ikasleak euskaldun eragile izatearen garrantziaz jabetzea. | Kontzientzi gehiago lortu dute. | Gure herrian euskararen erabilera: Herrian zehar Safari linguistikoa: datuak jaso. Datuak batu, antolatu eta mahai inguruan komentutatu. | Tutoreak + ikasleak | | Jasoko diren datuen zerrenda: Dendetan kartelak. Instituzioetako kartelak eta oharrak. Dendetako langileei (Udaltzainei, udal erakundeetako langileei, tabernariei, kaleko jendeari…) galdetu ea euskara erabiltzen duten. Zergatia ere galdetu. Kaleko iragarkietako kartelen hizkuntza. |
| Motibazioa, girotzea | Berbaro elkartearekin batera urte osoko motibatzeko ekintzen plana osatzea | Beste urte batzuetako dinamika positiboa sortzen den behatuko dugu | Tutore eta bestelako irakasleekin Arrazolako baserri batera joan (DBHko 2. mailakoak). Berbaro elkarteko monitoreekin euskarari begirako motibazio jokoak egin giza zientzia, gorputz hezkuntza eta natura sailetako hainbat jarduera ere gauzatzeko asmoa, betiere, dirurik balego. Osterantzean, Heziketa Fisiko Goi Mailako Zikloko ikasleen bitartez burutuko da. | Euskara irakasleek - Tutoreek - HNBko kideek | | |
| Motibazioa, girotzea | Berbaro elkartearekin batera urte osoko motibatzeko ekintzen plana osatzea | Beste urte batzuetako dinamika positiboa sortzen den behatuko dugu | kultur-asterako ekintzen berri eman eta bateren bat proposatzera konbidatu | HNATk | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Motibazioa, girotzea | DBHko ikasleek gure egitasmoan parte hartzea aktiboki: Euskalduna izatearen autoestimua igotzea. | Euskaltasuna indartu da.. | Ikasturtero institutuko pasabide bakoitzari kale baten izena eta plaka ipini, Euskal Kulturako pertsonai baten izenarekin: Zein pasabidetan jarriko diren plakak aukeratu. Ikasturte honetarako euskal protagonistak aukeratu. Plakaren deseinua adostu: Izena abizenak, argazkia, bere bizitza eta lanaren aipamenak. Plakak (kartel plastifikatua, egur txikia, metakrilatoa...) jarri eta ekintza ezagutarazi. | HNB+Tutoreak | | Euskaldun ospetsuen izen zerrenda. |

## 2.2. Irakasleak

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Metodologia. Interakzio didaktikoa | Arlo guztietan erabiltzen den materialetan, eskoletan eta jarduera osagarrietan euskera eta euskal kultura zaintzea eta zabaltzea: Metodologia eraginkorrena aztertzea eta proposatzea | Proposamen metodologikoa aztertu da. | Ikasleen ahozkoaren ulermena indartzeko materiala sortzea edo biltzea (Hobekuntza Plana). Grabazio sorta prestatu (poadcast Euskadi Irratia). Ikasgai desberdinetarako gaiak eta solasaldiak prestatu. | HNB + tutoreak | | Euskadi irratiko grabazioak |
| Komunikazio-gaitasuna | Arlo guztietan erabiltzen den materialetan, eskoletan eta jarduera osagarrietan euskera eta euskal kultura zaintzea eta zabaltzea: Irakasleon euskararen kalitatea handitzea. | Autoformazioa sustatu egin da. | HIRU.com-eko ikasten atala publizitatuko dugu klaustrokideen aurrean: Zertan datza. Autoikaskuntzarako balioa. Adibidea erakutsi. Parte hartzen animatu. | HIRU.com-eko ikasten atala publizitatuko dugu klaustrokideen aurrean: Zertan datza. Autoikaskuntzarako balioa. Adibidea erakutsi. Parte hartzen animatu. | | Hiru.com |
| Komunikazio-gaitasuna | Irakasleon arteko euskararen kalitatea handitzea. | Irakasleon arteko euskararen kalitatea handitzeko aukerak eman | autoikaskuntza eta iraleren berri zabaldu langile guztien artean | HNAT | | einika, norbanakoen helbide elektronikoa, geure web-gunea |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Prestakuntza | Arlo guztietan erabiltzen den materialetan, eskoletan eta jarduera osagarrietan euskera eta euskal kultura zaintzea eta zabaltzea: Komunikazio telematikoa euskaraz hobetzea. | Informatika euskaraz hobeto erabiltzen ikasi dugu. | Lankideei H500 ikastaroa proposatzea: Ordenagailuko hainbat aplikazio (bulegotika, irudien tratamenduak eta abar...) euskaraz erabiltzea Software librea euskaraz: Aplikazioak . | HNB + Zuzendaritza | | |
| Irakasleen arteko interakzioa | Irakasleak euskera eta euskal kulturaren igorleak direla ohartaraztea. Irakasleen arteko interakzioa euskaraz elikatzea. | Irakasleon lantaldeko ekintzak euskara hutsez dira. | Irakasleen arteko interakzioa euskaraz sustatzeko mintegi/zikloko bileretan honako teknika kooperatiboak erabiltzea proposatzen dugu: Proposamenak egiteko “1,2,4” teknika. Erabakiak hartzeko “Irakurketa partekatua” teknika. | HNAT + Zuzendaria | | |
| Partaidetza, inplikazioa | Irakasleak euskera eta euskal kulturaren igorleak direla ohartaraztea. Irakasleen partaidetza lortzea. | Jarraipena ikasturtean zehar egina. | Klaustroan Hizkuntza Proiektua egiteko gida aurkeztu. Normalkuntzatik jadanik erabakita dagoena eta bertan islatu daitekeena azaldu: Hiztunen arteko hizkuntza-harremanak euskaraz:Irakasle-irakasle; irakasle-ikasle; adminis. langileak-irakasle eta – ikasle; irakasle-guraso euskaldunak. Erakundeekin hizkuntza-irizpideak. Dokumentazioa, barne kontsumokoa zein kanporakoa. Hizkuntza-paisaia eta webgunea. … | HNAT + Zuzendaritza | | Aktan jaso |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Motibazioa, girotzea | Irakasleak euskera eta euskal kulturaren igorleak direla ohartaraztea. Irakaslegoaren artean euskaltasun giroa ospatzea. | Euskal Kulturaren ospakizunak agerian dira. | Egutegi berezia prestatuko dugu euskara eta euskal kulturarako data eta ospakizun azpimarragarriekin : abenduaren 3, Santo Tomas eguna, Euskaltzaindiaren ekimen bereziak, Durangoko Azoka, IRALE deialdia, Abadiñoko Feria, Elorrioko Euskal Jaia, Durangoko Euskal Astea, EITBko programa berria, euskal filama berria… | HNB | | Ohar-moten erduak. |

## 2.3. Administrazio eta zerbitzuetako langileak

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Komunikazio-gaitasuna. Prestakuntza | Administrariak eta zerbitzuetako langileak erabiltzen duten material guztia gutxienez euskeraz eta erderaz egotea eta ahal denean euskara soilean. Ez irakasleen euskararen ezagutza maila igotzen laguntzea. | Zalantza gehienak argitu dira. | Autoikaskuntzarako "hiru.com" eta "Euskaljakintza" webguneen erreferentzia eman eta azalduko diegu. | HNAT + Zuzendaria | | Hiru.com |
| Komunikazio-gaitasuna. Prestakuntza | Atezainak eta bulegariak kanpotik datorren edo kontaktuan (telefonoz, e-mailez...) jartzen den jendearekin harremana euskeraz hastea. | Bezeroen iradokizunei erreparatuko diegu. | Harrera emateko euskerazko formulak erabili. | Idazkariak eta atezainak | | |
| Partaidetza, inplikazioa | Atezainak eta bulegariak kanpotik datorren edo kontaktuan (telefonoz, e-mailez...) jartzen den jendeari euskeraz emotea zerbitzua: ikastetxean ikastetxez kanpoko euskaldunekin euskaraz. | euskaldunekin euskaraz. | Kanpoko bisitariekin (euskaldunekin) ahozko harremanak euskaraz izateko garrantzia azalduko diegu, eta honekin batera haiekin euskaraz hasteko eskabidean insistituko dugu. | HNAT+zuzendaria+Langile ez irakasleak. | | Azalpen zuzena |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Motibazioa, girotzea | Administrariak eta zerbitzuetako langileak erabiltzen duten material guztia gutxienez euskeraz eta erderaz egotea eta ahal denean euskara soilean: Langile ez ikasleak Normalkuntzaren prozesuan partaide aktiboak sentiaraztea. | Partaide izanagatik haien jarrera aktiboagoa lortu da. | Irakasleen artean zabaltzen diren lelo, informazio-oharrak, irakurgaiak, webgune interesgarriak eta bestelakoak haiekin ere patekatuko ditugu. | Zuzendaritza + HNAT + Langile ez irakasleak (edo ordezkoa) | | Lelo, informazio-oharrak, irakurgaiak, webgune interesgarriak eta bestelakoak. |

## 2.4. Gurasoak

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Harreman-hizkuntza | Gurasoekin egindako ekitaldi guztietan euskara, gutxienez, gaztelera bezain beste erabiltzea. Gurasoekin euskararen erabilera areagotzea. | Gurasoek institututarekin harremanak euskaraz (ere). | Institututik etxera bidaltzen den ikasleen ebaluazioaren nota txostena, irakasleak OHARRAK idazten dituenean, honako irizpideak erabiliko ditu: Sekula ez bidali gaztelera hutsean. Gurasoek gazteleraz jasotzeko eskaera eginez gero elebitan eman. Bi gurasoetako bat euskalduna baldin bada, euskaraz bidali. Bi hizkuntzetan idazten badira, euskarari garrantzia eman letra handiagoa jarriz. | HNAT+Guraso arduradunak+ Zuzendaritza | | |
| Harreman-hizkuntza | Harreman hizkuntzak gaztelania eta euskara izatea gurako genuke | Hitzaldiak zein idatzitako materiala euskara hutsean ala, gutxienez, euskaraz eta gaztelaniaz daudela egiaztatuko dugu | Guraso Elkarteko batzarretan komunikazioak, gutxienez euskaraz eta gaztelaniaz nahi ditugula jakinarazi | HNATk | | |
| Komunikazio-gaitasuna. Prestakuntza | Gurasoak seme-alaben hizkuntza-jarreran zein garrantzi handia duten konturatzea. Gurasoen euskararen erabilera areagotzea. | Gurasoei euskara erabiltzeko baliabideak emanda.. | "Hizketa ereduak" argitalpena gurasoen artean zabaldu. PDF-a deskargatu ahal da. | HNAT | | PDF-a jaisteko lotura: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/6503/eu_2415/terminologia_batzordeak_onartutako_hiztegiak.html |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Motibazioa, girotzea | Gurasoak seme-alaben hizkuntza-jarreran zein garrantzi handia duten konturatzea.- Familiak konturatzea euskalduntzea ikastetxearen esku bakarrik ez dagoela. | Familiak kontzientziatzeko ahalegina egina. | Gurasoei bidaliko zaizkien ohar guztietan honako leloa idatzi: “Umeek ez dituzte aginduak maite, ereduak kopiatzen dituzte. Izan eredu” | HNAT + Zuzendaritza | | Etxerako oharrak. |
| Gurasoak eragile | Guraso elkarteak Normalkuntza eta guraso guztien arteko zubia izatea, kexkak, eskaerak, parte-hartzea... bideratzeko orduan. | Guraso guztiak eta batzordearen artean komunikazio erreza dagoela ikustea. | Guraso elkarteko batzar batera gutxienez joango gara, han gure egitasmoa aurkezteko. | HNATak | | |
| Gurasoak eragile | Gurasoak seme-alaben hizkuntza-jarreran zein garrantzi handia duten konturatzea.- Gurasoak Elkarteak euskaraz erabiltzearen aldeko jarrera hartzea. | Euskara ezagutza eta erabilera indartzeko urratsak eman dira. | Gurasoei udaleko zerbitzu euskaldunen zerrenda bidaliko diegu bai haiek baita seme-alabek ere zerbitzu hauekin euskara erabili dezaten. | HNB+Gurasoen ordezkariak+Zuzendaritza | | Udalen ohiko zerbitzuen zerrenda: euskaltegia, liburutegia, harrera Udalan, polikiroldegiak, udaltzainek… |

## 3. Gelaz kanpoko jarduerak

### 3.1. Eskola eragile

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Jolasaldiak | Euskal Taldearen bidez ekintzak antolatzea | Kirolaren eta jokoen bidez, batez ere, euskararen aldeko jarrera lortzen saiatuko gara | Atsedenaldietan jokoak, jolasak... antolatu dbhko ikasmaila ezberdinak kontuan harturik; hau da, dbh1ekin hasi eta horrela dbh4ra arte | HNBk,HNATk, ikasleen Euskara taldeak | | |
| Jolasaldiak | Euskal Taldearen bidez ekintzak antolatzea | Kirolaren eta jokoen bidez, batez ere, euskararen aldeko jarrera lortzen saiatuko gara | Atsedenaldietan kirol-txapelketak antolatu, deialdiak-eta euskaraz idatziz eta eurek nahi luketena kontuan hartu | Gorputz Hezkuntzako irakasleak, HNTAk | | |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Jantokia | Gelaz kanpoko jarduerетan batez ere helburu hau kontutan izatea: euskararen erabilera areagotzea eta euskal kultura hobeto ezagutzea .- Ikasleen hizkuntza informala sustatzea. | HNATak jarraipena egin du eta ondo burutu da. | Langileen erabilerarako irizpideak, haiekin landu. Irizpide hauen lanketa ikasgeletan: Izan eredu. Jantokia euskara erabiltzeko gunea. Erabili edo saiatu. Lehen hitza euskaraz. Guztion esku. Joera aldatu. | HNAT+Zuzendaritza+jantokiko langileak | | |
| Sarrerak, irteerak | Gelaz kanpoko jardueretan batez ere helburu hau kontutan izatea: euskararen erabilera areagotzea eta euskal kultura hobeto ezagutzea.- Ikasleen hizkuntza informala sustatzea. | HNATak jarraipena egin du eta ondo burutu da. | Argazki eta muralen erakusketa: Ikasleek hilean behin/ hamabostean behin ikasgeletan landutako gai bati buruz argazki edo muralen erakusketa egingo dugu. Lanak pasilloetan jarriko dira, eta honen bidez haien artean hitz egiteko aitzakiak eta gaiak sortu nahi dira: irakasleok pasilloetatik ikasleekin batera ibiltzen garenean badugu beste aitzaki bat elkarrizketa edo eztabaida hasteko. | HNB + tutoreak | | Klaseko lanak. |
| Jaiak, ospakizunak | Euskararen Egunari behar bezalako garrantzia ematea | Programaturiko ekintzen balorazioa egingo da | DBHko taldeetan euskarazko abesti bat aukeratu, dantza prestatu; honekin batera bertsolariak, kontalariren bat proposatu eta euskararen eguneko grabaketa egin eta web-gunean txertatu. | Ikasleen Euskara taldea, DBHko euskara eta musika irakasleak; HNATk, web-guneko irakalse-arduraduna | | |
| Irteerak | Gelaz kanpoko jardueretan batez ere helburu hau kontutan izatea: euskararen erabilera areagotzea eta euskal kultura hobeto ezagutzea.- Euskal giroa izatea. | Irteeretan euskal giroa sortarazita dago. | Autobusez egingo diren xango eta irteeretan jartzeko euskal musika, filmak eta bestelako grabazioak prestatuko ditugu. Autobusean jarriko ditugu | HNAT+HNB | | Egungo euskal abestiren grabazioa. |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Egonaldiak | Eskolaz kanpoko ekintzak indartuko dira | Zehar lerroak egoki bete diren behatuko da | Tutore eta bestelako irakasleekin Arrazolako baserri batera joan (DBHko 2. mailakoak). Berbaro elkarteko monitoreekin euskarari begirako motibazio jokoak egin giza zientzia, gorputz hezkuntza eta natura sailetako hainbat jarduera ere gauzatzeko asmoa, betiere, dirurik balego. Osterantzean, Heziketa Fisiko Goi Mailako Zikloko ikasleen bitartez burutuko da. | Taldeetako tutoreek - HNBko kideek | | |
| Egonaldiak | Gelaz kanpoko jardueretan batez ere helburu hau kontutan izatea: euskararen erabilera areagotzea eta euskal kultura hobeto ezagutzea.- Euskal giroa izatea. | Egonaldietan euskal giroa izateko urratsak emanda. | Egonaldietako monitoreekin jokabidea adostu: Begiraleei euskaraz aritzeko jokabideak emango zaizkie eta hauek ikasleei gogoraraziko diete. Monitoreek ikasleei banatzeko deialdi, kartelak, iragarki eta oharrak euskaraz idatzi edota bete. Arduradun, entrenatzaile eta begiraleei ahozko komunikazioa eustearen garrantzia eta ezinbestekotasuna gogoraraziko zaie. Oinarrizko baldintza hau betetzen ez bada, ekintza bertan behera gera daitekeela adierazi. | HNAT+HNB | | Euskaraz aritzeko jokabideen zerrenda: Izan eredu. Jantokia euskara erabiltzeko gunea. Erabili edo saiatu. Lehen hitza euskaraz. Guztion esku. Joera aldatu. |
| Autobusa | Gelaz kanpoko jardueretan batez ere helburu hau kontutan izatea: euskararen erabilera areagotzea eta euskal kultura hobeto ezagutzea.- Euskal giroa izatea. | autobusean euskal musika entzuten da. | Eskolako autobusean jartzeko euskal musikaren grabazioak prestatuko ditugu, eta txoferrari edo enpresari helarazioko diogu. | HNAT+HNB | | Egungo euskal abestiren grabazioa. |

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskola-kirola | Ikastorduz kanpo egiten den eskola kirolaren bidez euskararen erabilera bultzatu. - Eskolaz kanpoko kirol ekintzak guztiz euskaraz izatea. | Betetze mailaren balorazioa | Kirol begirale euskaldunak kontratatzeko hauen artean bilatuko ditugu: Ikasle ohiak. Batxilergoko ikasleak. Klubetako entrenatzaileak. Guraso euskaldunak. Elkarte Taldeko kideak: dantza, antzerki, mendi... | HNB+Zuzendaria+Guraso Elkartea | | |

## 3.2. Elkarteak/erakundeak eragile

| Eragin esparrua | Helburua | Ebaluazio adierazlea | Jarduera | Nork | Noiz | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aisia, kirola | Euskara bultzatzeaz arduratzen diren erakunde eta elkarteekin, elkarlana bultzatzen jarraituko dugu. Erakundeen eskaintzak euskaraz gauzatzea. | Euskaraz direnak garatu dira. | Klaustroan onartzeko honako erabakia hartzea proposatuko dugu:" Kirol eta aisialdi erakundeek egingo duten eskaintzen artean, euskaraz direnak soilik aukeratuko ditugu". | HNAT + Zuzendaritza | | |
| Bestelakoak | Plateruenak antolatutako ekintzetan parte hartze zuzena izatea | Ikasleen jarduera hauekiko jarrera baloratuko da | Zilar Astean eta gure ikasleek antolatutakoetan (Poesia emanaldia, esaterako)parte hartu | HNBk eta ikasleek | | |